

PIARRES LAFITTE EUSKALTZAINA ETA EUSKALTZAINDIA

P. Charritton

Piarres Lafitte Baionako seminarioan sartzean baizik ez zelarik lotu se-rioski euskal ikerlanei, Anxuberro bere irakasleak gomendatu zion bezala, ha- ren bibliografiari soako baten egitea aski da ohartzeko, zinez, denbora labur- rrik barne, urrats handiak egin zituela bide luze horretan: doi-doia, hogeï urte zituen alabaina Ithorrotzar apezgaiak, *GURE HERRIA* aldizkari berrian argi- taratu zelarik, 1921ean, “Le Labourdin dans Ithurry”, titulupean, bere lehen artikulua.

Bizpahiru urteen buruko, 1924eko lehen saria eman zion Euskalzaleen Biltzarrak Piarres Lafitteri, *Lihooz* egin euskal itzulpen ederrarentzat eta ge- roztik, bizi guziko adiskide bilakatu ziren sari emalea, Biltzarraren Burulehe- na, Jean Etchepare mirikua, eta honek sariztatu apez berria.

Ondoko urtean aldiz, euskalzale gaztea, Frantzia behereko Tolosara joan zelarik, letretako lizentzia prestatzera, beste adiskide handi bat egin zuen han- go irakasleen artean, Pierre Lhande Heguy aita jesuita eta, ondorioz, geroxe- ago, euskaltzain ziberotarrak hasi berria zuen *Euskal-frantses hiztegia*, beren gain hartu zuten Pierre Lafitte eta Philippe Aranart haren bi ikaslekidek; 12 urteko lan itzelari esker biek bururatu baitzuten Uztaritzeko apezgaitegian ira- kasle zirelarik eta argitaratu Parisen, Beauchesne baitan, 1938an.

Anartean bada eta, Piarres Lafitte, 1928ko azken ikasturtearen ondotik, Uztaritzen kokatzekoa zelarik oraino, Resurreccion Maria Azkue Euskaltzain- buruak gutun bat bidali zion Tolosara, jakinarazteko, euskaltzain guztiek aho batez hura hautatu zutela, Georges Lacombe jaunak gomendaturik, euskaltzain urgazletzat, Jean Baptiste Darricarrère zenaren ordezkatzeko.

Kargu berria onartu orduko, euskaltzain urgazle berriak izan zuen Gre- gorio Maidagan apez zadorlariaren mezu bat: Azkueren partez eskatzen zion “literatura griega eta latinatik zati egokien batzuk euskarara bihurtzea”, baina ez dirudi Piarres Lafittek ihardetsi ziola eskabide horri. Erran genezake, izai- tekotz, gure maisu zena, hain gazterik Euskaltzaindian sartua izanagatik, Eus- kaltzainburuaren eta haren lankideenganik aski urrun egon zela, hogeï bat ur- tez bederen, hots, bera euskaltzain oso izendatua izan arte.

Urruntasun horren konprenitzeko, gogoan hartu behar ditugu urte luze horietan Lafittek beregain eraman zituen egiteko harrigarriak: 30eko hamarraldian, jadanik aipatu dugun aita Lhandek abiatu *Euskal-frantses hiztegi*az bestalde, urtez urte argitaratu zituen alabaina besteak beste: *Eskualdunen loretegia* eta *Simon Durruty apezaren eliza liburu ttipia* (1931), *Ithurralden kantuak* (1932), *Egiatzko argia* antzerkia eta *Eskual-herriaren alde* politika deia (1933), *Koblakarien legea* (1935), *J. Etcheparen Buruchkak* (1938), *Jesu Kristoren bizitza edo ebanjelio ttipia* (1939) eta, azkenik, nola ez aipa, aspaldian prestatzen ari zuen eta 1943an agertu zen *Grammaire Basque*, nafar-lapurtar euskalkien gramatikaren lehen argitalpena.

Ez du bada horrek erran nahi, urte haietan, Piarres Lafittek ez zuela harremanik izan Hegoaldeko euskaldun eta euskalzale askorekin, alderantziz baidizik. Badirudi ezen, *Eskualduna* astekarian, *Gure Herria* aldizkarian eta bereziki *Aintzina* kazetan hark berak idatzi artikuluak, eta ere haren gutundegia aztertu ondoan, Amelia Hernandez, Pako Sudupe, Jean Claude Laronde edo beste ikerle batzuek egin lanek erakusten dutela zer ararteko paregabea izan zen gure Uztaritzeko irakaslea 30 eta 40eko hamarraldietan, bi Euskal Herrietako herritarren artean.

Bere belaunaldiko lagun batzuekin izan zituen ordea, zuzen den bezala, harreman tinkoagoak Piarres Lafittek, 36 eko gerla aitzinean, Aingeru Irigaray nafartarrarekin adibidez, eta gipuzkoar apez euskalzale batzuekin: hala nola, *Euskaltzaindiko Laguntzaileak* taldearen izenean mintzo zitzaion Martin Lekuonarekin, edo *Euskalzaleak taldearen Yakintza* -ko Jose Ariztimuño Aitzolekin edo Antzekilari gazteekilako Markiegi apezarekin. Zilegi izanen ahal zaigu ohartzea, hiru apez horiek Espainiazale nazionalistek fusilatu zituztela 36eko gerlaren lehen egunetan?

Erran behar dugu ere egun ilun horietan, Piarres Lafittek ararteko lanak egin zituela, Iruñeko jazarleen partez proposamen batzuk Euskal Alderdi Jeltzalearen buruzagiei berak eramanez Donostiaraino. Debaldetan zorigaitzez, Donibane Garaziko Louis Inchauspe jaunaren karta labur batek finkatzen duen bezala, 1936eko agorrilaren 10ean.

Dena dela, badakigu denek zer laguntza ekarri zien gero gure irakasleak, gostarik gusta, gerlaren ondorioz, Iparralderat etorri ziren Hegoaldeko ihesliari eta handiei.

36eko gerlaren ondotik etorri zen ordea laster 39koa eta erran genezake ez direla horretan erraztu Euskal Herriko lurraldeen ala belaunaldien arteko harremanak. Hortik menturaz gure irakasle ohiari kausitzen ohi baigenion, gerlaz geroz, guk gaztek, politika eta kultura xede handiei buruz halako ezkor edo uzkur aire bat.

Orixerekin *Eusko Jakintza*-n izan zituen hika-mika gazi-gezak, jostagailu geneuzkan, baina begirune handiz mintzo zitzaizkion Azkue, Zaitegi edo

Narbaitz batzuen aldera zeukan hoztasuna ez genuen beti ulertzen. Zernahi dela, 1949ko urriaren 25ean, Piarres Lafittek euskaltzain oso bezala, Georges Lacomben alxia hartzeko sarrera hitzaldia bere hutsen eta bekatuen umorezko barkamen eske bat eginez hasi zuen, kantatzen zuela: "*Lurraren pean sar nindaiteke maitia zure ahalgez..*"

Zertaz zuen bada bekatoreak nahi ahalgetu eta urrikitu?-"*Orai artio ez nitzaizue biziki urrundik baizik jarraiki...*", zuen aitortu umilki Piarresek. Baina guri iduritzen larriagorik bazuketela denek gogoan, ez baitzuen oraino nehor ahantzia, bospasei urte lehenago, euskaltzain berri horrek berak idatzi zituela, bere Gramatika famatuaren aitzin solasean, lerro etsitu hauek, guhaur euskaraz jartzera ausartuko garenak:

"Autore batzuek amestu dute euskararen bateratzea iraultzabidez, beste batzuek bilakabidez. Gogoan ditugu alde batetik Azkue apezaren gaztaroko lanak eta aita Soloeta-Dimakoarenak, esperantoarekin eta volapükarekin egin ohi den bezala, gramatika elementuak edozertarik osatzera lehiatzen zirelarik eta bestaldetik ari gara Euskal Akademia defuntuaren proiektu batzuek, zuhurtziarekin erabakitzen baitzekien, baina mortuaren erdian legeak aldarrikatzen: menturaz lasterregi zoan, gure eskualdearentzat bederen, gipuzkera hartzen zuelarik euskara literarioaren lehen oinarritzat".

Egia erran, guhaurk azpimarratu ditugun "Euskal Akademia defuntuaren" hiru hitz larri horiek ziren soberakin 1943ko gramatikaren edizioan, beste guztiak beren hartan atxikirik ere Piarres Lafitte nehor bezain on zen, Iparraldetik ekarriko zituen René Lafon, Jacques Allières, Jean Haritschelhar eta beste hizkuntzalariekin, 50/60 eko hamarraldietan, Hegoaldean Azkue eta Urkixo itzali orduko, belaunaldi berriko Mitxelena, Villasante eta Altuna, Krutwig eta Txillardegi, Irigoyen eta San Martin batzuen partialier izaiteko eta, Euskaltzaindiaren hastapenetan Azkue eta Broussainek asmatu eta amestu "*euskara bakunaren*" xede handiari berriz lotzeko.

Euskaltzaindiaren beraren argitalpenetan eta artxiboetan, bai eta *Zeruko Argia*, *Euzko Gogoa*, *Herria* edo beste aldizkarietan ikus dezakegu zer izan zen Piarres Lafitte eta Iparraldeko lagunen eragina "H" letraren batailetan, *Aditz batuaren* antolaketan eta azkenik *Euskal Gramatikaren Lehen Urratsak*-en abiaduran. Ez gara horretan sartuko.

Eta erran behar dugu euskaltzale lagunek eta hizkuntzalari jakintsunek ekartzen zioten estimuaren seinaleztat hartu zituela, gure irakasle zenak, 1968an Pariseko *Centre National de la Recherche Scientifique* goi-erakundetik etorri zitzaion deia, 1982 an Euskal Herriko Euskal Unibertsitateak egin "Doctor Honoris Causa" izendapena eta azkenik urte berean Euskaltzaindiak eskaini IKER II omenaldi liburua.

Bizkitartean, gure ustez, Piarres Andiazabal kalonjeak ongi zaintzen duen Piarres Lafitten gutundegia argitaratuko delarik jakiten ahalko da hobeki zer

izan den zuzen gizon horren partehartzea, 1949tik 1985era, euskaltzain oso bezala ibili dituen urratsetan.

Adibidez, *Euskara batuaren auzia* berotu ala mindu aitzin, hots, 1950etik 60rako hamarraldian zer girotan zegoen Euskaltzaindia ikusteko eta kinka larrietan zer bidetarik zebilen gure maisua ulertzeko zilegi izanen ahal zait Aingeru Irigaray aspaldiko adiskide handiari, 1962 irian, bidali zion gutun luze hau, komentariarik gabe, solas ondotzat irakurtzea.

(1962...)

Adiskide Jauna,

Ondar denbora hautan ez gira zuen aldetarikako berririk gabe. Eta, egia erran, buru-joangarri da ikustea gure Eskualzaindi xaharra gisa hortan zatiakatu.

Hunaindiko eskualdunek auzi hortan sartzeko esku-biderik badugun gaude, baitakigu Eskualzaindi guzia zuen arteko diru xoilak deramala, eta gu bizkarkin bezala aurkezten girela zuen artean, nahiz bethi ongi hartuak eta ederki artatuak.

Bertzalde, nahiz zonbaitek dioten, bazterretik gauzak askotan hobeki ikusten direla, atsoitzak dio: « urrungo eltzeta urhez, harat orduko lurrez ».

Gure aburuek zer balio duten ez dakit, baina hasian hasi huna neure ikusteko manera.

Iduri zait Akademia, aspaldiskoan, ez dela estalgi nasai bat baizik: agintarien begietan gerizatzen ditu eskuararen alde eginikako asko jai, zoin gehiagoka, sariketa, liburu agertze eta holako. Ez da gauza apurra, segur eta halere; eta hauspean erdi-bizi zen pindarrari garra ateratzeko errestasunen emaita izan da obra bat zaila eta merezimendu handikoa. Baditake, behin edo bertez, Akademia zuhurregi edo herabegi aurkitu duten zonbaitek; baina nik ez diot hortan haririk aurdikiko, hain zuzen hura nun den ez baitakit: zuhurtziaren izenean alderdikari izan ditakela ere, erran dute; baina bana-bertez iduri zait Akademia ez dela izan hain hertsia: aise da erraitea, ardietsi ez dituen baimenak ez zituela, beharbada, izaiteko gisan galdetu! Frantsesez "procès de tendance" erraiten diotegu aieru horieri.

Beraz Akademiak denen eskerrak hartze ditu, eskuarari eta eskualzaleri egin dioten laguntza eder horren gatik.

Baina ez dut uste Eskualzaindiaren eginbideak hortan direla mugatzen. Eta ez badu kasik bertzerik egiten, hori heldu da lehen-lehenik egiazko buruzagi baten eskasetik. Azkue bere azken urtetan ez zen itzal bat baizik, izan zenaren ondoan. Erlikia saildu baten pare ohoratzen ginuen, baina ez zuen gehiago deus ere ez manatzen, ez kudeatzen. Oleaga gaizoak zadorlari zeraukan prestu-pres-tua, eta ez ginen lanho-arte hortarik ateratzen! Gero Echaide jauna etorri zaiku, bethi maitagarri, baina gemenik gabe, eritasunak ahuldua. Hunek ere ez dauku behin ere lanik agindu, ez xederik aurkeztu. Eta, erran badezaket, ondarrerat gauzak mandotik astora joan zaizkigu. Zadorlariaren mutila, A.I. jarri zaiku denen kudeatzale; hots, morroina nagusi. Bertze nehork ez baitzuen eskualzainetan ma-

natzeko ausartziarik, mutila ikusi dugu eskualzainen itzain; eta nik ez dut batere arrotz atzemaiten, izana jadanik zuenak nahi ukan baitu eskualzain izena ere ardietsi. Ofizioa utzi ziotenaz geroz, zertako ez titulua ere eman? Nago, bururaino joaitekotz, ez litaken buru ere ezarri behar!!! Funtserat-eta, A.I. gazteari ez diot nik hobenik botatzen; izaitekotz, gu gira hobendun, eskualzainak, gauzak hortaraterat utzi ditugulakotz, gemen eskasez, edo ezinbertzez.

Bainan badut uste A.I.-ren izendatzeko maneraz kexu direnek arrazoin dutela: indarkako ukaldi baten itxurak baditu, Eskualzaindiko arauak kasu horretan baztertuak izan baitira. Gure gustuko, izendatze hori berriz egitekoa da: hiru eskualzainek aurkeztu dezatela, eta gero izkiribu horren gainean eman bedite bokak, eta legez izendatua izanen da.

Haatik ez gira munduaren azkeneraino buruzagirik gabe egoiten ahal. Norbait... behar dugu, manatzaille. Araudiak ez du ekartzen hil-artinokoa izendatu behar denik. Bizpahiru urterentzat ongi litake. Erran gabe doa "citoyen espagnol" beharko dela, asko arrazoin bixtan direnen gatik. Bainan otoi ez ezar aitaso zahar akiturik, eta ahalaz ez apezik ere.

Geroko izendatzeari buruz izanen da zer egin. Guk, Lapurdi-aldekoek, ez dugu pleinitzeko arrazoinik, alkiak nasaiki eman dauzkutue; bainan biziki xuhur ez ote den izan Eskualzaindia bertze Eskualde batzueri buruz, eta hori behar bada, ala ez azolez ala batzuen beldurrez? Nik ez dakit, bainan aditu izan dut, azken denbora hauetan eskualzaindia bilakatua dela giputch-zaindia, hots, zombaiten eskuetan dagola eroria eta hain xuxen Gipuzkoako jaun batzuen menea. Hortako omen da kasik Donostian kokatua. Guri iduri zaiku Donostia ez dela hain gaizki hautatua, bide-erditsutan bezala delakotz, bai hemendik, bai Nafarroatik, bai Bizkaiatik. Bizkitartean hedamenaren gatik noizean behin Donostiatik ateratzea ez zaiku batere gaizki; eta hortan ere guk ez dugu erraitekorik, bai Baionan, bai Uztaritzen bildu baita jadanik Eskualzaindia, eta berriz etortzekoa ere Belokerat eta Baigorriat segurik, aurthen berean.

Ikusi behar, ea guretzat dituzuen arta horiek, ez litazkeen hedatzen ahal Nafarroarat ala Bizkaiarat. Bilbotar batzuei iduri zaiozte zireztela gu erdi-arrotzentzat dena agur, eta hurbilekoentzat muttur! Ez dut, egia erran, batere sinesten halako alderdikariak zireztela: halere kasu egin behar ginuke denek, ez ote ditugun aisegi baztertzen garbizale batzu, ez direlakoan gure eskuara herritarraren alde. Zuharek diozun bezala: Eskualzaindiak gora atxiki behar du bere burua.

Bilbotar anaia horiek ezinago minberak dira eta idurikorrak. Erranen dautzut gure departamenduan halako zerbait iragaiten dela. Gu eskualdunek ez dugu Baiona baizik gogoan, bainan Pau-en baita departamenduko hiri-nausia, iduritzen zaiku han beti gure kontra ari direla, dena azpikeria eta faltsokeria, eta askotan harrituak daude biarnesak nundik atheratzen ditugun gure ixtorioak, uste gabetarik zaurtu gaituztelarik. Inchauspe jaun zena Paueko Deputazionean buru izan zenaz geroztik, aitortuko dautzut Biarnesekilakoa arras eztitu dela beharrik, eta eskualdunak ez girela lehen bezain idurikorrak. Banago ez denetz holako zerbait gertatzen bilbotar haurrideekin. Ez ditugu sumindu behar, eta are gutiago baztertu behar: batasuna orotan galde egiten-eta, itsusi eta kaltegarri laiteke nolazpait ez elgar aditzea.

Letra luze hunek nahi zaitu argitu gure aburuez; behar bada lagunduko zaitu, heldu den biltzarraren apailatzen zure adixkidekin. Ez dautzut batere segeturik galde egiten, eta erakuts dezakezute zure Donostiako eskualzainkideri, bereziki Lecuona, Arrue, Michelena jauneri. Igorri dautzut, Dassance eta Eppherre jaunekin hitz egin ondoan, baina ez heien partez: beude ene gain hemen erranak.

Gauzak naski gordinkisko atera ditut, baina ez dira Eskualzaindian irakurtzekoak, ongi elgar ezagutzen dugunen artean baizik. Zuhauk ikus funtsean nori on zaitzun parte emaita, zerbait antolamendu egitekotan.

Zure aspaldiko

P. Lafitte

Bizkitartean ez nuke hitzalditxo hau bururatu nahi, ene izenean, eskerrak bihurtu gabe, haren seme-alaba anitzek erraten genion bezala, aita Lafitteri eta ez bakarrik gaztaroan bidegile apartekoa izan dudalako, baina ere bai ene Ameriketako itzulia ene gisala egin ondoan, deus ez balitz bezala, besoak zabaldu dizkidalako eta zahartzaroko eskumakilatzat nolazpait hartu nauelako.

Eta horrela dut ikasi, adinean han hara goazenak, langile handienetarik izanik ere, bururatu gabeko lanak utzirik joan behar garela, hala nola, Piarresek ez zuen argitaratu amestua zuen Leizarragaren edizio kritikoa, ez eta ere euskaldunei euskaraz eskaini nahi zien Euskal Literaturaren Historia, baina hori beste kapitulu bat liteke. Bego horretan!